

IRITZIA  
Itziar Ajuria

ERREPORTAIA  
Kemen eskopeta  
fabrika  
nazioartera begira

# BARRREN

1997ko apirilaren 11  
V. urtea - 190. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A

KALE INKESTA

Bikote  
legezk

UDALETXETIK

Udaltz  
zerbitz  
hobetz  
inkesta

BERBETAN

Ramor  
Jaureg  
Arrasa  
Patron  
zuzend

KIROLA

Joseba  
Etxebe  
"peña"  
aurkez

KULTURA

Ekekei  
estrein

GAZTAROA

Gaztet  
negozi

## Ekekei, Gernikako arbolaren gerizpean



"Artea egia ezagutzen laguntzen duen gezurra da". Pabl o R. Pi casso



# GLAZA

## Jaunartzeak



*Pedro Muguruza, 8  
Tel: 74 16 42 20870 Elgoibar*

# OSTARKEU



**ESKA EZAZU ORDUA  
ZURE JAUNARTZE  
ARGAZKIETARAKO**

**Bizitza guztirako  
oroigarria izango duzu**

*Ez laga azken  
momenturako, zatoz!*

**Santa Ana, 5 • Tel: 74 06 46 • Elgoibar**





ITZIAR AJURIA

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

# Nahaste-Borraste

**T**elefonoa:  
 - BARRENetik deia: - Itziar Ajuria? Ainhoa Lodoso deika.  
 - Bai esan.  
 - Opor ondorenerako, ia idazlantxo bat egiten duzun BARRENerako.  
 - Ene ama! hau buruko mina. Irakurtzea oso atsegin dut, baina ez idaztea, ez da nerea!

Aukera pila bat aipatu zituen: politika, erlijioa, kultura, etab., etab.

Politikari buruz zer esan? Hor dira politikokak, benetan aspertzen gaituztenak. Nere alde-tik besterik ez dut esango: pakea, pakea eta pakea behar dugula!

Erljioa: Aste Santua datorrenez (irakurgai hau azaldu orduko, igarota egongo da) hor dator garai kristaua behar bezala bizi nahi badugu, egun oso egokiak berari buruz gauza ederrak entzuteko eta bizitzeko. Zoritxarrez edo zorionez, gehiago gogoratzen gara oporrez.

Kulturari buruz, nik uste dut zorionez, gauza on asko ditugula orain: mahainguruak, hitzaldiak, erakusketak, etab. Honez gainera, antzerki lanak ere izan ditugu azken bolada honetan oso atsegin izan zaizkidanak: San Antonetan "Florido Pensil" oso ikusgarria izan zen nere ustez, batez

ere gure adineko pertsonentzat, zeren guk bizi izan genuen garaia izan zen hura. Baita ere (eta hau eskerrak Olentzerori sarre-ra bat bidali zidalako) aukera izan nuen "Aida" opera Donostian ikusteko. Zoragarria benetan!

Eta orain, nere andereño denboretako anekdota batzuk: lehenengo urtea izango zen. Haur batek galdetu zidan ia zenbat urte nituen, nik erantzun nion: "hogeita lau", nahiz eta askoz gehiago izan. Hurrengo urtean, baita ere nire egunean, berriz ere haur berak: "Zenbat urte dituzu andereño?" eta nik aurreko urtean zer erantzun nion gogoratu gabe: "hogeita hiru". Eta orduan haurrak: "Aiba, andereño, iaz 24 esan zendun eta aurten 23? Zela da hori?" Ume azkarra benetan!

Eta beste bat ere esatera noa: hau ere lehenengo urtekoa da. Garai hartan hasita zeuden esaten ilargira helduko zirela. Nik neuk ez nuen sinesten helduko zirenik. Bazen haur bat gelan, beti "ilargian" zegoena ni hizketan nengoenean. Egund batean gai honi buruz ari ginela, neuk esan nuen: "Hara, ilargira doazenean ikastolatik Jose R. bidaliko dugu. Eta umeak erantzun zidan estu eta larri: "Ez, andereño, nik botarka egiten dut!"

**"Kulturari buruz, nik uste dut zorionez, gauza on asko ditugula orain: mahainguruak, hitzaldiak, erakusketak etab."**





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
☎ 74 41 12  
Publizitatea:  
☎ 74 37 04  
Faxa: 74 37 04

<b>ARGITARATZAILEA</b>	Elgoibarko Izarra
<b>LAGUNTAILEA</b>	Elgoibarko Udala
<b>ZUZENDARIA</b>	Ainhoa Lodoso
<b>ERREDAKZIO KONTSEILUA</b>	Andres Alberdi, Rosa Agirregabiria, Mikel Kortabitarte
<b>KAZETARIAK</b>	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
<b>PUBLIZITATEA</b>	Miren Moreno
<b>MAKETATZAILEAK</b>	Mikel Cornejo
<b>ADMINISTRAZIOA</b>	Amaia Martin M. Angeles Ortuoste, Rafa Alvarez
<b>KOLABORATZAILEAK</b>	Irati Agirreazaldegí, Gemma Agirregomezkorta, Itziar Ajuria, Ion Arrieta, Agurtzane Arriola, Edurne Bilbao, M. Angeles Exposito, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Ane Guilló, Jon Gurrutxaga, Antton Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Jokin Martinez, Juan Luis Mugertza, Ongarri Zine Kluba, Pello Rubio, Ixidor Solupe, Leire Urkidi, Unai Villena eta Julen Zabaleta
<b>BANAKETA ARDURADUNA</b>	Imanol Larrañaga
<b>INPRIMATEGIA</b>	Gertu Koop. E.
<b>TIRADA</b>	4.000 ale
<b>LEGE GORDAILUA</b>	SS-1.038/92
<b>ISSN</b>	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



Kutxa fundazioa  
Fundación Kutxa



## Matilde del Campori erantzuna

Andere agurgarria:

Goizeko 7etan nire kamioia martxan jarri eta bost minutuz horrela edukitzen dudalako kexatzen zara. Lanera joan behar izaten dudala egiten dut nik hori eta zu izorratzeagatik (eguneko edo gaueko edozein ordutan egin dezaket hori). Bost minutuz martxan jartzen badut, frenatzerako orduan "airea" behar izaten duelako da. Ezinezkoa da eskapeko kea zure etxean sartzea, hala ere, leihoa ixtearekin kitto arazoa.

Zuk diozun bezala, gainontzeko garraoilariek kamioia uzten duten tokian aparkatzeari buruz, zera esan behar dizut: lehendabizi bertan bizi den jendeari galdetu beharko litzaioke. Zuri kamioi batek molestetzen badizu, pentsatu zer izango zitekeen 5 edo 6 kamioi batera. Bada esaera bat hauxe dioena: zuretzat nahi ez duzuna ez desio besteentzat.

Nik beste irtenbide bat proposatzen dizut: nire etxe aurrean hiru zabor kontenedore daude (goizaldean jaso, garbitzen... dituztenak) bai eta paper eta beira kontenedore bana ere. Kontenedore horiek 20. zenbakian jartzea lortzen baduzu, bertan toki ezin hobea dago eta estetikoki askoz hobeto geratuko litzateke gutxiago ikusten baitira, eta ni Udaletxeari mesede hori egiteko eskatzera ausartzen ez naizenez, nik neure aldetik ordain modura, hainbeste enbarazu egiten dizun kamioia leku horretatik erretiratzeko hitza ematen dizut.

**M. Dolores Outumuro**

### BARKATU OKERRAK

Joan den asteko BARRENen, 189. zenbakian, 5. orrialdean agertzen zen urteurrenoko mezan oker jarri genituen argazkiko pertsonaren datuak. Barkatu eragindako kalteak.

## GALDERAK

◆ **Elizaz Nazkatutako Elkarteko kide batek** honako galdera hau luzatu nahi dio eliz elkarteari: **“Gu Elizako zerrendetatik kanpo gaudela hala nahi dugulako. Heriotzako orduan, gure borondatea elizan funerarik ez egitea da. Hil-tzen garenean, elizara eramaten bagaituzte, legez kanpoko izango litzateke Elizaren jokabidea?”**

**Xabi Gómez** apaizak zera erantzun digu: **“Legez kanpoko izatekotan, elizako legalitatea hautsiko luke**

eta ez legalitate zibila. **Elizak azkeneraino errespetatuko du pertsona horren borondatea.** Ez badu elizkizunik izan nahi, ez du izango. Hori bai, familiak elizakoei jakinarazi behar dio espreski zein den hildakoaren borondatea. **Familiak ez badu ezer esaten eta elizkizuna egiten bazaio, ardura familiarena da,** ez elizarena. Dena den, zuzenbide kanonikoaren arabera, badago lege bat borondatea errespetatu behar dela esaten duena.”

## TXALOAK

◆ Igeriketa Taldeko kide batek **Patronatuko zuzendaria txalotu** nahi du **igerilekuan bi tranpolin jarri dituelako.** Bere ustez, beharrezkoak ziren ganoraz entrenatu ahal izateko.



◆ BARRENeKo irakurle batek **“Harrigoikoerrotaberritarak”** komiki tiraren egilea, Kokoeko **Alberto García,** txalotu nahi du, **“benetan komiki politik eta entretenigarriak egin baititu”.**

## KEXAK

◆ **“Asteartean Athletic-eko jokalariek Elgoibarren izan ziren eta Kultur Etxean zegoen jendea ez zioten kasurik egin. Kultur Etxe barrura**

inbitazioarekin bakarrik sar zitekeen eta hala eta guztiz ere batzuk kolatu egin ziren. Oso gaizki iruditzen zaigu jendea kanpoan geratzea”.

## BAI, ESAN?



**Juan Angel Balbasi**  
DEBEGESAko gerentea

Ekaingo margoen erreprodukzioen proiektua bultzatzeko **“Ekaingo Lagunen Elkarte”** osatzeko asmoa dagoela irakurri genuen joan den zenbakiko BARRENeN. Honen inguruan zertxobait gehiago sakondu nahian, proiektuaren suspertzaile den **DEBEGESA erakundeko gerenteari, Juan Angel Balbasi,** hiru galdera luzatu dizkiogu.

- **Zer da eta zein helbururekin sortu nahi duzue Ekaingo Lagunen Elkarte?** - Elkarte juridikoki ez dago eratu. Epe laburrean elkarte bezala sortzeko asmoa dago. Talde honen helburua, generikoki, Ekain II deritzon konplexuaren eraikuntza bideratzeko egingo diren ekintza guztiei onespina ematea litzateke.

- **Lehen bilera Deban izan zen asteartean. Zein da zure inpresioa bileraren ostean?** - Oso positiboa. Bai kuantitatiboki bai kualitatiboki ordezkaritza oso nabarmena izan zen. Bertan izan ziren guztiek sentitu zuten proiektua erabat beharrezkoa dela bai arlo kulturala bai arlo ekonomikoa garatzeko.

- **Zer beste ekintza egiteko asmoa duzue Ekaingo proiektua jendearen artean ezagutarazteko?** - Hemendik aurrera Ekaingo Lagunen elkarte osatzen duten pertsonen ospe eta izenak proiektuari berri ere ospea emango diote. Hala ere, proiektuaren berri sakonagoa emateko asmoa dugu.

- **Noiz ikusiko ditugu erreprodukzioak martxan?** - Dena ongi badoa, datorren urtean hasiko dira eraikuntza lanak. Bi urte beranduago gutxi gora-behera izango da inaugurazioa.



**OIERKI IGOGAILUAK**

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

(943) 20 35 15 • ABERIAK (943) 20 35 15

Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskal



**URKIDI**  
**AHOLKULARITZA**  
**ASEGURUOAK**

Kalamua 12  
ELGOIBAR  
Tel-Fax:  
74 18 91



# Kemen

## Liderrak eskopetagintzan

*Ermuaranbide kalean kokatzen da Kemen. Kanpotik itxura xumea du armagintzan aritzen den enpresa honek. Halere, bertara hurreratu eta Arcadio Sarriugarterekin hitzeginez gero, 1990. urtetik hona egindako bidea motza baina benetan aberatsa izan dela ikus daiteke. Goi mailako eskopetak egiten dituzte, kirol txapelketatan erabiltzen direnak. Kemen markako eskopetekin makina bat txapelketa irabazi dituzte mundu osoko kirolariek. Atlantako Olinpiadetan ere ikusi ahal izan ziren eskopetak. Orain hilabete eskas Elgoibarren izan zen Bruneiko sultana, munduko gizonik aberatsenetarikoa. Laster, berri, Espartaco toreroa etortzekotan omen da.*

**S**arriugartetarrak 1959. urtean hasi ziren eskopetak egiten. Garai hartakoak ehizarako eskopeta paraleloak ziren. Baina, urteek aurrera egin ahala, merkatuan hutsune bat zegoela jabetu eta, beste produkzio bati ekin zioten, oraingo honetan goi mailako konpetizioeko eskopetak eginez. 1990. urtean Francisco, Juan Cruz eta Arcadio Sarriugartek, Servando Corbillón-ek eta Sarriugarte enpresa ohiko beste 10 kolaboratzailek Kemen sortu zuten.

### Kemen, indarra

Produktu berria sortu eta merkatuan sartu zuten Kemen izenarekin. Arcadiok esan bezala, “Kemen hitzak indarra, adorea esan nahi du. Gaur egungo gizarte konpetitibo honetako

multinazional handiei aurre egiteko behar duguna”. 1990. urtean katalogo xume bat argitaratu eta hedatu zuten bezeroen artean. Bigarren katalogoa 1993an atera zuten, honako hau grabatu eta pletina berriekin eta slogan indartsu batez lagundua, “Fórmula 1eko eskopeta”. 1995ean Kemenek eskopeten artean izarra bihurtzen dena sortzen du, erregeen artean errege: “Suprema”. Aurten, berri, berehalako batean eskopeta berri bat merkaturatuko dute, “gutziz desmontatzen den eskopeta berri-berri bat. Orain arte mundu osoan ikusi ez dena”.



Fabrikatzen dutenetiko %85a esportatu egiten du Kemenek mundu osoko 23 herrialde ezberdinetara eta horrez gain, mundu mailako tiratzailearik onenak Kemen eskopetekin aritzen dira, besteak beste Australia, Belgika, Luxenburgo, Dinamarka, Hungria, Portugal, Malta, Mexiko, Frantzia, Irlanda, Zelanda Berria,... Batz bestee eguneko eskopeta bat egiten dute, guztiak eskuz. Horretarako, 12 langilez gain, grabatzailearik onenak kontratatzen dituzte, kasuan kasuko grabatu orijinal eta onenak egiteko. Horietako batzuk baita urrez ere. Izan ere, eskopetak 500.000 eta 3 milioi pta.ren artean saltzen dira.

Enpresa txikia izanik ere, Kemen mundu mailan funtzionatzen duten hiru enpresa handien parean aurkitzen da, Beretta, Parazzi eta FN. Benetan lorpen handia da kontuan izanik duela 20 urte armagintzaren sektore guztiak 300.000 eskopeta saltzen bazituen gaur egun 15/18.000 baino ez direla saltzen guztira. Kemenen fabrikazio osoaren %90a tiro egiteko goi mailako konpetizioetara zuzendutako eskopetak dira eta %10a ehizarako.

Arcadioren hitzetan, “gaur egun, enpresa txikiek produktu artsanala



*Egunean eskopeta bat egiten dute batz beste Kemen arma fabriketan.*



*Ezkerrean, Juan Cruz Sarriugarte Bruneiko Sultanarekin tiro zelaian. Eskuman, Arcadio Sarriugarte Sultana agurtzen.*

egin behar dute eta, ahal bada, merkata monopolizatu. Guk 6 urtetan lortu duguna kompetentziak 30 urtetan egin du”.

### Bezero famatuak

Kemenek bide berria hasi zuenean argi zeukan produktu berri eta desberdina eskaini behar zuela merkatuan, “ez hori bakarrik, baita bezeroekiko harreman zuzenagoa ere. Gure izena ahoz aho zabaldu da eta bezero batek beste batengana eramán gaitu”. Izan ere, eskopeta bakoitza neurriera egiten da, “eta horretarako hona etorri behar dute, neurriak hartzera, pertsona bakoitzari

eskopeta konkretua dago-kio eta”. Horrez gain, eskopetak daramatzen grabatuak pertsonalak dira, “bezeroak aukeratzeko grabatua, bai gure katalogoan ikusita, bai berak kapritxoak nahi duena ere. Denetik eskatu izan digu jendeak, emakume biluziak eta gerrako motibak barne”.

Bezero famatuak ditu Kemenek. Txapelketetan ibiltzen diren kirolari profesionalen gain, beste arlo askotako pertsonaia ezagunak ere erosten dituzte eskopetak Elgoibarren, Estatu mailakoak ezezik, baita mundu mailakoak ere. Esate baterako, “orain gutxi Hollywood-en erakusketa moduko bat

egin zen, erakusketa-txapelketa. Bertan, aktore ezagunak hartu zuten parte eta guztiak Kemen eskopetak erabili zituzten. Charlton Heston-en fundazioak antolatu zuen txapelketa eta irabazlea Tom Sellek aktorea izan zen”. Horrez gain, jakin dugunez Dallas telelerietako J.R. bera bezero dute, baita Sensación de Vivir-eko Dylan famatua, Robert Stack, Felipe Espainiako printzeak tiroko eskopeta eskuratu zuen, Juan Carlos I.a Erregeak ehizakoa etab.

### Bruneiko sultana

Orain hilabete eskas, Aste Santua aurretik, Elgoibarren ahoz aho zurrumuru bat zebilen. Nonbait, Bruneiko Sultana etortzekotan zen. Esaerak dienez, “ibaiak zarata egiten badu, ura darama” eta oraingo honetan ere horrela izan zen. Izan ere, Bruneitik etorria zen Sultana bera Keme-

nen eskopetak erosi nahi zituela eta neurriak hartzera. Anekdotak kuriosoak jakin ahal izan ditugu Arcadiok kontatuta. Esate baterako, “Sultanarekin batera mutiko gazte bat etorri zen, bere bufoia zena. Mutikoa denbora guztia sultanaren atzetik zebilen, atximurka egiten,..”. Madrileko Ritz hotelean egin omen

zuen lo Sultanak, “eta lehenengo gauean Erregearekin egin zuen parranda, gaueko 2ak arte edo”. Hiru eskopeta jaso eta bide batez probatzera joan eta gero eskuak garbitzeko hotel berezia behar zuen, “diskretioa, inork ez eza-gutzeko modukoa”. Eta Sultanari espreski prestatu zioten langosta eta marisiko bazkaria bertan behera geratu zen, boltsako patata frijituak bakarrik nahi zituelako”.

### Ospitalea

Gaur egun bide onetik doa Kemen, Arcadiok adierazi digunez, “batzuetan ospitalea dirudi honek. Jendeari neurriera egin behar zaio eskopeta. Neurriera egindako traje bat bezalakoa da. Pertsonak ez dira egunero talante berdinean egoten eta oso inportantea da eskopeta bere ezaugarrietara ganoraz egokitzea. Neurriak aldatu egiten dira disziplina ezberdinen arabera. Badira disziplina olinpikoak eta ez olinpikoak eta bakoitzak ezaugarri erabat ezberdinak ditu.”

Kontua da, 7 urteko ume txiki hau enpresa helduen aurrean kompetentzia egiteko beldurrik gabe jaio zela. Eta bistan da asmatu ere asmatu dutela.

# Ezkondu gabeko bikoteak legeztatzearen aldekoa al zara?



**SARA SALEGI**  
39 urte, etxekoandrea

Bai, neretzako eskubide berdinak euki behako leuke. Ezkontzian aldekoa naiz baina nahi ez daban edozeinek eskubide berdinak euki bihar ditzu.



**PEDRO MUGERZA**  
57 urte, jubilatua

Bakoitzak libre daka nahi dabana eixia. Ni elizatik ezkondu nitzan baina ez diot ikusten elkarrekin bizi eta ezkondata egotiarri alde handirik.




**M. ITZIAR LOPEZ DE LARRINZAR**  
37 urte, etxekoandrea

Aldekua naiz. Elkarrekin bizi dianeaz eskubide berdinak eukitzia ondo iruditzen jata batez ere urte asko elkarrekin eruaten dabenian, bikotia establia danian.



**ION ORTUOSTE**  
43 urte, muntatzailea

Bai, ze gaur egun bietako bati zeozter gertau ezker, ezer barik geratzen da. Zibilez ezkontzia antzekua da, baina nahi ez dabana errespetau ein bihar da.



**JULIAN ESPIGA**  
64 urte, jubilatua

Ni ezkondu egin nintzen baina gaur egun gauzak dau-den bezala egonda... bai. Ni-ri ez zait ardura bikotea pozik bizi bada elkarrekin. Beste guztiak bezala dira.



**M. CARMEN PÉREZ**  
37 urte, etxekoandrea

Legalizazioa judizialki egin behar bada, azken finean ezkondata egotea bezala izango da, ez? Ez dakit non dagoen aldea. Hala ere, eskubide berdinak eduki beharko lituzkete.

JAKIN

Informatika  
 Klase partikularrak  
 Kontu eta merkatal gestioa

**TALDE MURRIZTUAK**  
**KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**

---

Errosario, 25- 1 esk.  
Tel: 74 08 95  
ELGOIBAR

Santalaitz, 4  
Tel: 76 00 68  
BERGARA

Pedro Muguruza 5  
Tel 74 08 06  
20870 ELGOIBAR



## Bikote ez legeztatuak

Gaur egun sarritan entzuten dugun terminoa dugu "pareja de hecho" edo bikote ez legeztatua, "pareja de derecho" edo zuzenbideko bikote terminoari kontrajarria.

Espainiako Konstituzioak gizon-emakumeen eskubideen artean elkarte afektibo eta egonkor baten bidez bizitza-komunitate bat eratzeke eskubidea arautzen du, familia baten sorrera erakarriz (39.1 art.). Ez du beraz, elkarte afektibo hauentzat egonkortasuna beste betebeharririk jartzen. Izan ere, gaia, betekizun honen eskutik etorriko da. Nola frogatu eta finka daiteke egonkortasun hori? Beste erlazio mota askotan bezala, kontratu bidez.

Ezkontza izan da historian zehar hartu izan den erakunde forma, baina gaur egun bikote ugari dira beren bizitza-komunitate iraunkor hori ezkondu gabe eratzea aukeratzen dutenak edo eta horretara behartuta daudenak ere. Hori kontuan hartuz eta bikote horiek babes sozial, ekonomiko eta juridiko berdin batetik kanpo gera ez daitezten (heredentzia eskubidea, errenta aitortpena batera egin ahal izatea, seme-alabei abizenak eman ahal izatea eta beste asko), gure marko judizial eta legalak aldatu beharko lirakeke baina aurrerakuntza oraindik makal eta geldo azaltzen zaigu.

Azken egun hauetan espainiar parlamentuan botatu da bikote ez legeztatu edo "de hecho" hauek bikote ezkonduekin parekatuko lukeen legea, baina, komunikabideen bidez ere jakin dugunez, ez da aurrera atera. Euskal Parlamen-

tuan, berriz, ez dago horrelakorik eta sexu berdineko bikoteekiko zenbait eskubide konkreturi buruzko proposamena baino ez da.

Administrazio mailan, Udal batzuek, eta euren artean Elgoibarko Udalak, ezkondu gabe bizi direnen Udal Errolda indarrean jarri dute, Elgoibarko konkretuki urtarrilaren 31tik aurrera.

Bikotea bera Udaletxean aurkeztuz gero eta bikote bezala inskribatzeko borondatea azalduz, errejistratuta geratuko da, bai sexu ezberdineko bai sexu berdineko bikoteen kasuan. Elkarrekin izango duten harremanaren eta ondare mailan izango dituzten harremanen hitzarmenak ere jaso ahal izango dituztelarik. Udalak, bide honetatik, denborak markatzen duen bidea hartu du eta errejistro municipal honen bitartez nolabait berdintasuna eta askatasuna babestu nahi ditu, udal adiminzazioaren aurrean bada ere, esparru mugatu horretan izango baititu bere ondorio garrantzitsuenak.

Tamalez, errejistro edo errolda honek izango dituen ondorio juridiko zuzenak hutsak izango dira, eta bere ondorioak zeharkakoak baino ez dira izango, adibidez, bikote baten elkarbizitza probatu ahal izateko. Beraz, eskubideren bat irabazteko izan daitekeen arren, ez da urrutitik ere, ezkontzarekin parekidetasun bat. Aldaketa juridikoa ezinbestekoa izango da errealitate berri hau arautzeko baina oraindik pauso makal eta osotasunik gabekoak baino ez dira eman bide honetatik.

**Ana Etxeberria** eta **Rita Egaña** abokatuak

# iSPILUA- BERI DEGIRA



*Jone Uauza*

EROSKiko  
kajera

- **Zein txapon gorroto duzu?**
- Pezeta eta hamar pezetakoa.
- **Zein loteria jaso nahi zenuke?**
- Seme-alabak eta familia pozik ikustea.
- **Diruak zoriontasuna ematen al du?**
- Ez, lagundu dezake baina ez du ematen.
- **Umetan matematikak gustuko al zenituen?**
- Ez gehiegi.
- **Sekula txanponen bildumarik egin al duzu?**
- Ez, ez zaizkit kolekzioak gustatzen.
- **Maitasuna eros daiteke?**
- Ez, maitasuna sentitu egiten da.
- **Zenbakiak ala letrak?** - Zenbakiak.
- **Zein zentzumen garatu nahi zenuke?**
- Beharbada ikusmena, garrantzitsuena da.
- **Aukeran zein negozio jarriko zenuke?**
- Osasun gauzak asko gustatzen zaizkit, beraz, be-lar denda bat edo.
- **Zortea ematen dizun zenbakiak?** - 3a eta 7a.
- **Zer hedatuko zenuke egungo gizartean?**
- Errespetua eta elkar entzutea.
- **Eta zer mugatuko?**
- Handikeria, ez dut soportatzen.
- **Ba al duzu maniarik?** - Ez, oso simplea naiz.
- **Zer jateaz ez zinateke aspertuko?** - Arraina.
- **Harreman hotz bat berotzeko?**
- Errespetua eta komunikazioa.
- **Gezur txikiak ala egia erdiak?** - Egia erdiak.
- **Maitatu ala maitatua izatea?**
- Maitatzia. Zuk sentitzen dozuna inork ez dizu kentzen.
- **Zer ezkutatuko zenuke kutxa batean?**
- Seme-alabak jaio zireneko momentuak, ez dago horrelakorik.
- **Etxean egoteko?** - Txandala edo arropa zaharra.
- **Zure bizitzako ilusioa?**
- Familia osoa Indiara joatea.

## ● Elgoibarko kanpoaldean eraiki beharko dira etxebizitzak aurrerantzean

Eusko Jaurlaritzak orain-tsu onartu ditu Lurralde-antolamendurako arauak (DOT). Arau hauek markatzen edo aholkatzen dute herri bakoitzari zein antolamendu komeni zaion lurra etxebizitza edo industrietarako egokitzeko orduan. Duela pare bat aste bilera bat izan zuten Eibarren Deba Beheko ordezkariak herri bakoitzeko egoera aztertu eta gaiari buruz hitzegiteko asmoz.

Eibar, Ermua eta Soraluze gaina jo dute eta, dirudienez, DOTek euren hedakuntza Markina aldera egitea proposatzen dute, zonalde hori baita naturalena.

Elgoibarri dagokionean, berriz, intentsitate altukoa izendatua dago, batez ere herri barruari dagokionean. Beraz, zentrotik kanpo garatu eta hedatu beharko lirakeke lurra, bai industrietarako, bai etxebizitzak egiteko.

Gillermo Garate alkateak esan zuenez, "inguruko herrien egoera ikusita, momentu egokia izan daiteke gauzak eskualde mailan aztertu eta Elgoibar industri eta etxebizitza gune bihurtzeko".


## ● Nafarroara mendi irteera

Morkaikok Nafarroako Ibañeta (Orreaga) eta Urkiaga mendateen arteko irteera antolatu du hilaren 19rako. Izena emateko elkartera hurbildu edo telefonoz deitu 74 02 97ra. Bestalde, Finalistaren Egunaren prestakizunetan ari da elkartera. Iaz mendi lehiaketetan aritu zirenei mendien zerrendak hilaren 25a baino lehen elkarterean eskuetan jartzeko epea amaitzen dela jakinarazi nahi zaie.

## Oteiza eta Basterretxea eskultoreak izan ziren EKAINGo Lagunen Elkartearen bileran

**J**oan den asteartean DEBEGESAko Ekaingo Lagunen Elkartearen osatzeko bilera egin zuen Deban. Ekitaldian Deba eta Elgoibarko alkateak, DEBEGESAko gerentea bai eta Euskal Herriko kulturaren munduko pertsonaia ezagunak ere izan ziren: Jorge Oteiza eta Nestor Basterretxea eskultoreak, Peña-Gantxegi arkitektoa, Alberto Albistegi Errealeko jokalaria, etab. Ekain II proiektua Astigarribian kokatuko da eta haitzuloen erreproduzioak izango dituen eraikin bat egingo da. Honez gain, arkeologia zentro bat ere eraikiko da, baita estetikaz zentro bat eta museo ireki bat ere. Obren lehen fasean Ekaingo margoen

birproduzioak egingo dira eta guztira 1.800 milioi beharko dira proiektua burutzeko. Finantziazioan ekimen pribatuaren garrantzia azpimarratu zen. Proiektuaren arlo sozialaren aldetik, Ekainen Lagunen Elkartearen sorrera urrats bat dela aipatu zuen DEBEGESAko gerentea. Hemendik eta uztailera bitartean Ekaingo Lagunen Elkartearen komunikabideetan agertuko da, administrazioarekin harremanak sortuko ditu eta egitura juridikoa emango zaio. Helburu nagusia Ekaingo ondarearen berri ematea izango da. Hartara, kide guztiei dokumentazioa bidaliko zaie eta lantaldeak eratu dira aurki lanean hasteko.



## HBko Jabi Agirrek zinegotzi izateari utzi dio

HBko iturrietatik jakin izan dugunez, Jabi Agirre elgoibartarrak HBko zinegotzi izateari utzi dio. Arrazoiak "pertsonalak" izan dira HBko zinegotzi den Pello Mendizabalek esandakoaren arabera. Agirre bi legealditan egon izan da Udaletxean zinegotzi modura, Elkoro-Iribe alkate zenean lehenengo, eta oraingo legealdian. Udal lanetan jardun duen urte hauetan hirigintza eta ingurugiro gaietan buru-belarri aritu da Jabi Agirre. Zinegotzi honen ordezkoko bat topatzeko HBk bilera egin zuen atzo, osteguna, Kimetz elkarterean. Zinegotzi aldaketa ezezik, azken hilabeteotako gertakariak ere aztertu zituzten batzarrean.



## Euskal Herriko itzulia, Elgoibartik zehar

Igaro berri den astelehenean, arratsaldeko 4ak hoge gutxitan zehatz esateko, pasatu zen Euskal Herriko itzuliko lehen etapa Elgoibartik. Legazpitik atera ziren txirrindulariak, eta Legazpin bertan amaitu zen lasterketa. Arratsaldeko 3:30ak aldera, King-Kongeko zubiaren parean, 634 errepide nazionalen kokatu zen meta bolantearen azpitik ihesaldian zihoan Lotus taldeko Christophe Moreau frantsesa izan zen lehendabizi iritsi zen txirrindularia. Bizpahiru minutu beranduago tropela pasatu zen, abiada handian. Errepide bazterretan ez zegoen ikusle gehiegi, jende askok ez baitzekien itzulia Elgoibartik igaroko zenik.



## Ondo baino hobeto pasatu dute Brinkolan

Aste Santuko oporrak aprobetxaturik, Elgoibarko Izarrako Atxutxiamaika Begirale Taldeak, Udalaren dirulaguntzarekin, Brinkolako (Legazpi) aterpetxera irteera antolatu zuen apirilaren 2tik 5era. Egitasmoa 5. mailako haurrei zuzendurik zegoen eta egun horietan gaztaren museoa bisitatu zuten, mendi-irteerak egin, Mirandolako burdinola ikusi... 28 haur irten ziren guztira 4 begiralerekin, eta ederki ibili zirela eta oso pozik etorri omen direla ere jakin dugu.

1997-IV-11

## ● Familia eta aisialdia

Udal Ongizate Sailak eta herriko ikastetxeek elkarlanean, gurasoei zuzenduriko aisialdiaren inguruko tailerra antolatu dute. Ikastaroaren helburua aisialdia heziketarako tresna bezala ulertzea da, besteak beste: Aisialdian zer egin, giza garapenerako tresna bezala landu, familiarean barruko espazio hezitzaile bezala tratatu etab. Ikastaroa Amagoia Zabala eta Rosa Ugalde hezitzaileen eskutik izango da apirilaren 23eta 30ean eta maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an. Matrikularen zenbatekoa 1.000 pta.koa da. Eskera orria Udaletxean jaso daiteke eta bertan entregatu apirilaren 21a baino lehen (74 10 08).

## ● Serigrafia eta litografia Artelekuren eskutik

Artelekuk serigrafia eta litografiari buruzko tailerrak antolatu ditu maiatzatik uztaile bitartean. Serigrafia Pepe Albaceteren eskutik izango da eta Don Herberten tailerlean litografia emango da. Hil bakoitzeko prezioa 13.000 pta.koa da ikastaroek bi eta hiru hilabeteko iraupena izango dute. Currikulumak Artelekura bidali behar dira apirilaren 18a baino lehen (Kirs-tobaldegia 14, Loiola E-20014-Donostia. Tel: 45 36 63).



## Bosgarren txinarren taldea Elgoibarren

Joan den ostiralean, hilak 4, iritsi zen Elgoibarrera Txinatik etorritako bosgarren ikasle taldea. Astelehenean Udal areto plenoan harrera egin zitzaion AFMko Alberto Ortueta zuzendaria, Gillermo Garate alkatea eta IMHko arduradunen eskutik. Txinako Kanpo Arazoetarako Sailak (MOFTEC), Atzerriko Herrialdeekin Elkarlanerako Institutuak (ICEX), Erreminta Makinaren Elkarteak (AFM) eta Eusko Jaurlaritzak bultzatutako programari esker, erreminta makinaren enpresa fabrikatzaile eta erabiltzaileetako 16 ikaslek 3 hilabete pasatuko dituzte Elgoibarren. Programaren helburua CNC, mantenu eta fabrikazio alorreko heziketa jasotzea da eta zeregin honetan jardungo dutenak IMHko irakasleak izango dira.

● **San Pedroko Kruzelegi inguruan elektrizitatea sartuko da**

San Pedro auzoko Kruzelegi sektorea elektrifikatzea erabaki zuen aho batez Gobernu Batzordeak. Aipatu obra "Eten S.A." enpresak egingo du berarena izan baitzen eskaintzarik merkeena. Horrela bada, obren kostua 3.418.953 pta.koa izango da.

● **3.000 pta. emango dira komisioko**

Udaletxeko teknikariek 3.000 pta. jasoko dute komisiario bakoitzeko. 1991. urtean hartu zen erabaki baten arabera, orain arte teknikariek hileko hainbeste jasotzen zuten komisiarioetara joateagatik. Aurreantzean, komisiario bakoitzeko 3.000 pta. eta ordu estra bat jasoko dute.

● **PPko Avianen erantzuna alkateari**

Juan Carlos Avian, PPko zinegotziak orain hila-bete inguru Gillermo Garate alkateak "gezurtero" deitu zuela eta horren aurrean zeresanik baduela adierazi du. Avianek 1995eko apirilaren 4tik ekainaren 10era enpresa batean egin omen zuen lan, "tarte horretan izan ziren hauteskundeak eta garai horretan izendatu ninduten zinegotzi. Zinegotzi lana-zela eta arratsalde askotan Elgoibarrera etorri beharra nuenez, enpresak, nahiz eta oso gustura egon nirekin, kontratua eten egin zidan. Beraz, ez naiz gezurtero bat alkateak esan zuen bezala".

## Udaltzaingoak zerbitzua hobetzeko inkestak jarriko ditu martxan

*Datorren astelehenean, hilak 14, programa berri bat jarriko du martxan Udaltzaingoak kalitatea hobetzeko helbururarekin. Azken hila-beteotan Aniotz Gabilondo, Gestio Eskolako ikaslea praktiketan izan da Udaletxean eta bere laguntzarekin inkesta bat osatu dute Udaltzaingoaren eta herritarren arteko komunikazioa bideratu eta zerbitzua hobetzeko asmoz.*



*Jabier Oñederra sarjentua eta Aniotz Gabilondo, inkestaren egilea.*

**K**alitatearen hobekuntza jarraitua egin nahi da. Honek esan nahi du, Udaltzaingoak zerbitzua eta herritarrekiko harremana hobetu nahi dituela. Aniotzek esan bezala, "kontua ez da 15 egunez inkestak bete eta horien arabera egitea aldatzea eta hobekuntzak. Helburua konstanteki hobetzea da, ondo dagoena ere beti hobetu daitekeelako. Zirkulu moduko bat da eta etengabe hobekuntza lortzea du helburu".

**14 galderako inkesta**

Kalitatearen hobekuntza lortu ahal izateko hasieratik garbi izan zuten beharrezkoa zutela herritarren kolaborazioa, "azken finian, udaletxia zerbitzuak eskaintzen ditzun enpresa bat bada, herritarrak dia bezeruak". Hori dela eta, "batetik zerbitzua hobetu nahixan eta, bestetik, funtzionarioei buruz dagoen irudi txarra, biharrezkua ikusi gendun zeozer eitxia". Ho-

rretarako, inkesta bat egin du Aniotzek, 14 galderaz osatua, "hala ere, ez da biharrezkua galdera danak erantzutia, nahiz eta ideala hori izan. Gainera, inkesta ez da itxia, hau da, jendeak emandako sugerentziekin galdera berriak gehitu ahal izango dira".

Aipatu inkestak hasiera batean Udaltzaingoan eskuratu ahal izango dira. Inkestak anonimoak dira, ez dago sinatu beharrik eta Udaltzaingo kanpoan jarrita dagoen buzoira bota behar dira. Jabier Oñederra sarjentoak esan digunez, "astero inkestak jaso eta bertan azaltzen dana irakurriko dogu, zer dan gaizki ein dana, zerekin dauden gustora, sugerentziarik dauan ala ez... Eta hortik abiatuta hasiko gera pentsatzen zer ein leiken zerbitzua hobetzeko". Presarik ez dago. Epe luzerako proiektua omen da, "espero degu jendiak erantzutia. Danon onerako da eta".

### Inkestako hainbat galdera

- Zerbitzuaren lekua, eguna eta ordua.
- Udaltzainaren izena edo plaka zkia.
- Udaltzaingoak zein zerbitzu eskaini dizu?
- Udaltzainaren zerbitzuaren kalitatea?
- Eskaintako zerbitzua nola hobetuko zenuke?
- Isuna jarri dizute?
- Zein arrazoi zegoen isuna jartzeko?
- Zein dira zure ustez udaltzainaren oinarriko betebeharrak?
- Udaltzaingoan jarri al duzu inoiz kexaren bat?
- Zein galdera egitea gustatuko litzaizuke?



28 urte dituen elgoibartar honek zuzenbide ikasketak egin zituen. Egun Elgoibarren bizi den arren, Arrasateko udalerrian Kirol Erakundeko gerente lanetan dihardu. Kirola egitea atsegin du, eta nahiz eta berak kiroldegi batean lan egin, nahiago ditu aire librean egiten diren kirolak, batez ere bizikletaz ibiltzea. Bere lanari buruz mintzatzeko gure artera ekarri dugu, bada, Ramon Jauregi.

# RAMON JAUREGI

## “Kanpoan egiten diren kirolak nahiago ditut”

– Zein da zure zeregina?

- Arrasateko Kirol Erakundearen administrazio gerente postua betetzen dut. Beraz, kontabilitateaz arduratzen naiz eta idazkari lana ere egiten dut. Honez gain obra, inbertsio eta langileen arloak ere ikutzen ditut.

– Nola hasi zinen?

- Ekainean lau urte bete teko dira Arrasaten lanean hasi nintzela. Zuzenbidea bukatu eta hiru aukera nituen nagusiki: abokatu gisa bulego bat ireki, irakasle lanetan aritu edota oposaketetara aurkeztea. Nik hirugarren bide hau aukeratu nuen eta orain nagoenera iritsi nintzen. Politena da, ikasketekin zerikusia izateaz gain, kirola atsegin dudalako.

– Deba bailaran bada ekimen bat “Kirola Euskaraz” deritzona.

- Ni arlo administrati-

boaz arduratzen naizenez, ekimen hori kirol teknikariaren lanaren barne sartzen da. Dena den, esan daiteke, hasiera batean ikusi zela, Deba Garaian kirol arloan herrien arteko harreman handia izanik, zenbait ekintza batera antolatu zitezkeela. Ondorioz erabaki zen hau aprobetxatuz euskara bultzatzea. Gero hau guztia Deba bailara osora zabaldu zen. Beraz, udal txete bakoitzeko kirol eta euskara teknikarien bidez, kirol ikastaro, argitalpen eta ekintza ezberdinak euskaraz antolatzean datza.

– Zein dira zure lanaren alderdi onak?

- Gauza ezberdin askotan aritzeko aukera ematen dit: zuzenbidearekin zerikusia duten gauzak, ekonomia arlokoak, obrak, jende ezberdinarekiko harremana: kirol taldeekin, udal txeteko lankideekin, poliki-

roldegia erabiltzen dutene-kin, beste udaletako kirol arduradunekin...

– Eta txarrak?

- Sarritan kirol arloan, instalakuntzak, ordutegia etab., gaizki dauden gauzez konturatu arren ez dago gure esku horiek konpontzea, goiko karguen agindu eta aurrekontuak direla eta. Halere, gu gara jende aurrean erantzuleak. Bestalde, ez nuen inoiz pentsatu, nire lana zela medio, telebista aterako nintzenik, baina Arrasaten telebista dagoenez, irten izan naiz eta horrek oso urduri jartzen nau.

– Kirolik egiten al duzu?

- Txikitatik futbola gustatu izan zait eta Jubenilen mailaraino horretan aritu nintzen. Gero bizikletaz ibiltzen hasi nintzen eta egun ere horretan aritzen naiz. Kirol ezberdinak praktikatzeko gustatzen zait, futbola, korrika, eskia-tzea... Astean bi edo hiru egunetan egiten dut kirola. Arraroa badirudi ere, nik polikiroldegi baten lan egin arren, kirola kiroldegitik kanpo egitea gustatzen zait.


– Zure lanean izan duzun anekdotarik?

- Kiroldegia goizeko zortzi eta erdietan zabal-tzen dugu eta egunero zortziak eta laurdenetatik hamar edo hamabost bat jubilatutako egoten dira zain atea noiz irekiko. Gainera norberak bere takila eta bizikleta izendatuta dauzka eta horiek eman ezean ez dira gustura gelditzen. Baina horrek poza ematen du, ikusten baituzu zerbaiteko bazaudela lanean.

Irati Agirreazaldegia

### BESTEAK ESANA

“Hain gaztea izanik oso pertsona zentzuduna eta azkarra da lanean; gauzak ondo eta erraz ikasten ditu”  
LUIS MARI IRIONDO



## Jose Kruzelegi eta Eusebia Arrieta

# "Erromerixa politxak eitxen ditxugu Benidorm-en"

20 urte daramate Benidorm-era joaten. Jose Kruzelegik 75 urte ditu eta Eusebia Arrietak 76. Bikote elgoibartar hau osasun kontuengatik hasi zen Alicanteko hirira joaten eta, konturatu gabe, uste baino urte gehiago daramate urteroko egonaldiarekin. Esan digutenez, gainera, ondo baino hobeto etorri omen zaie.

— 20 urte. Ez da gutxi!

Jose: Ez, egixa da. Oin dala 20 urte medikuak esan zian nahi ez banaban sila de ruedasian geratzia, toki siku batera jun biharra nakala. Eta holaxe, Benidorm-era jutia erabaki genduan eta gaur arte.

— Klima ona, bizitza lasaia...

Eusebi: Ez dakitx ze pasatzen dan, dana izango da seguruena. Goizian jaiki eta ikusten dezu dana, zerua eta itsasua urdin-urdina, hango trankilidadia... Lelengo urtian 15 egunerako jun ginan baina hain ondo ein zigun beste 15 egun luzatu gendula.

— Etxe batean egoten zarete, ez?

Jose: Egonda gaude bi bider hotelian baina ostantzian beti etxe bat alkilatzen dou. Hotelak bentajak badakaz, ez oherik ein, ez jatekorik preparau.. Baina, etxian ere gustura, zure kontura.

— Honez gero ezagunak izango zarete.

Eusebi: Danian, bai dendetan, kamizerixan... Gainera, kuadrilia ere badakau. Gu bezela Eibartik eta beste asko jutun dia eta danak batera ibiltzen gera.

— Zein izaten da plana?

Jose: Goizian jaiki, armozau eta andria plaiara jutun dan bitxartian nik mendira eitxen dot bueltia, Madarixan alturakua edo izango da. Gero bazkaldu eta beste bi orduz edo etxe gaineko terrazan egoten gera, gero karta jokura, afaldu...

— Eta dantzara?

Eusebi: Ez gera jutun. Nahixao dou etxian trankil geratzia, telebisio piskat ikusi eta... Behin edo behin jun izan naiz lagunekin dantzara baina gitxitxan.

— Halere, San Isidro eguna beti ospatzen duzue.

Jose: Bai, a maiatzan 15a. Kuadrila haundixa elkartzen gera terrazan. Txanbolinek jatekua preparatzen dau eta nik soinua etarutzen dot, beste batek panderua... Erromerixa politxa eitxen dou, danak

dantzan eta kantuan.

— Saloura ere joan izan zarete noiz edo noiz.

Eusebi: Bai baina ez jakun asko gustau. Umedade gehixo dau Benidorm-en baino. Gu gusturo ibiltzen gera Benidorm-en.

— Onik egin dizue, beraz.

Jose: Bai. Neri medikuak esan zian ahal naban guztietan hondar sikuan gainian buruz behera etzateko eta bizkarrian eguzkixak emateko. Baitxa, hondar sikuan zuluua ein eta belauinak sartuta egoteko. Ezin laike sinistu zelako ondo ein dian neri!

— Gaztetuta?

Eusebi: Horixe baietz! Igual kanpotik ez, eguzkixakin zimurrak urtetzen dia eta. Baina barrutik askoz gaztizo sentitzen zera, arino danerako. Eta hori da balixo dabana.



Soinuarekin, Jose eta bere eskuman, Eusebia, makurtuta.



# GAZTAROKO OROITZAPENAK

## Tomas Cano eta Isabel Ruiz

### "Ezkondu eta 5 urte pasa genituen banatuta"

60 urte! Ez da, ez, zenbaki makala ezkondu horrenbeste urtez irau-teko. 78 urte dituen Isabel Ruiz eta 82ko Tomas Canok martxoaren 25ean bete zituzten 60 urteak eta oraindik ere beste asko ospatzea espero dute. Hiru alaba, bi iloba eta lau biloba dituzte. Kontua da, Santander aldeko bikote honek ezkonberritan dexente istorio pasa behar izan zituela gerra zela eta. Horiek guztiak kontatzera etorri ziaizkigu BARREnera.

— 1937an ezkondu zineten, zibilez.

**Isabel:** Bai, hala da. Gerra garaia zen eta gorriak sartu zirenez, apaiz guztiak alde egin zuten, ihesi. Hortaz, gure herrian ez zegoen apaizik eta nola ezkondu nahi genuen, momentuz zibiliez ezkontzea erabaki genuen.

— Halere, ezkondu eta berehala banatu beharra izan zenuten.

**Tomás:** Bai, gerra garaia zen eta joan beharra izan nuen Asturiasera lehenik, Frantziara, Kataluniara, Murtziara...

— Urtebetez senarra hilda zenuela uste izan zenuen.

**Isabel:** Hala da, bai. Ezkondu eta hiru hilabetera joan zen eta urtebetez bere berri izan gabe egon nintzen.

Bonbardaketa asko izaten ziren eta haietakoren batean hil zela uste nuen. Pentsa, alaba ere jaio zitzaigun eta arazoak izan nituen bataiatzeko, apaizak, elizaz ezkondu ez nengoela eta ume hark aitarik ez zuela esaten baitzuen. Horregatik, ez bataiatzea erabaki nuen aita etorri arte.

— Gero, Tomas, zuk apaiz hari bizia salbatu zenion, ez?

**Tomás:** Bai, kasualitatez izan zen. Bonbardaketa bat zegoen eta garai hartan apaizak ere Santanderetik ihes egin behar izan zuen. Ezagutu eta nirekin eraman nuen baina mesedez eskatu zidan ez esateko inori gertatukoaz ezer. Gerra amaitu zenean, preso nengoela, apaizari esker atera ninduten.

— Halere, eskutitz eder bat jaso zenuen Isabel.


**Isabel:** Bai. Hura poza! Pentsa, senarra hilda zegoela sinestu eta derrepentean, ia urte t'erdira eskutitza iritsi zitzaidan.

Oraindik gordeta daukat. — Bi urte, beraz, banatuta.

**Isabel:** Bai. Gure lehen alaba bi urterekin ezagutu zuen Tomásék.

Gerra amaitu eta etorri zenean ezkondu ginen elizaz. — Eta orduan etorri zineten Elgoibarrera.

**Tomás:** Bai, lehengusuak genituen eta.



— Baina arazoak ez ziren amaitu.

**Isabel:** Bai zera! Orduan ere, gerra amaitu eta gobernu berria zegoenez, Tomásék soldadutza egin behar zuela esan zuten. Berriz ere senarrik gabe geratu nintzen bi urtez, Afrikan izan baitzen soldadutzan. Senarrik gabe eta bi alaba nituela itzuli nintzen Santanderrera.

— Ezkonberritako urteak gogorrrak, ez?

**Tomás:** Oso gogorrrak. Umetatik elkar ezagutzen genuen. Isabelek 18 urte zituela ezkondu ginen eta, bat batean, gerra medio, banatu beharra izan genuen. Oso gogorra izan zen. — Halere, pozik egon zaitezket 60 urte elkarrekin ezkondu bete dituzuelako.


**Isabel:** Hori egia da. Guk ere izan ditugu bikote guztiak bezala eztabaidatxoak baina sekula ez dira egun bat baino gehiagoz luzatu. Ondo asmatu dugu bata bestea onartzen. Urte asko, gauza txar eta on asko pasa ditugu elkarrekin.

— Ea platinozko eztaiak betetzen dituzuen!

**Tomás:** Askotxo dira horiek. 15 urte falta dira oraindik. Hala balitz Guines liburuan sartzeko moduan egongo ginake! Hori bai, 16 urte daramatzat jubilatuta eta orain bezala ez naiz sekula bizi izan. Oraingo lasaitasuna ez nuke ezerrengatik aldatuko.

# Egiten al duzu kirolik?

Udaberrian gaude. Eguraldiak ere ez dirudi txarrera egiteko asmorik duenik. Udara, oporrek, hondartza begibistan ditugu dagoeneko eta eguzkiarekin batera ikusten dira, baita ere, batean eta bestean txandala jantzi eta kirola egitera ateratzen diren pertsonak. Urteek aurrera egin ahala, ez dago zertan ariketa fisikoa egiteari utzi beharrik. Are gehiago, adituen esanetan, guztientzat da onuragarria kirolen bat egitea. Nork bere gaitasunaren arabera egokitua beti ere.



## Gustavo Conde

Erori egin nintzen eta oinean min hartu nuen, orduanik ez nabil lehen bezain arin. Halere, medikuek uste zutena baino hobeto nabil, hasieran apenas ibiliko nintzela esaten zidaten eta. Nik ia urte osoa Torreveijan pasatzen dut. Han hondartza asko dago eta dena da laua. Nik egun osoa pasiaran ematen dut, ezin naiz geldi egon, eta hori da onena.



## Elias Liz

Artrosia eta mokorra nahiko geizki ditut eta ezin dut nahi beste egin. Halere, egunero pasiarra luze bat ematen dut. Batzuetan beste 12-14 km. inguruko pasiarak ematen ditut egunero, pare bat ordu edo, eta arratsaldetan bizikleta estatikoan ibiltzen naiz, medikuek aginduta.



## Enrike Loiola

Ibili eitzen naiz ni asko. Egunero edo ixa egunero, juten naiz mendira, Madarixara, Xoxotera, Erlora... Bidez bide dana, kaletik hasitxa. Bastante osasuntsu mantentzen naiz eta gustatzen jata mendixan ibiltzia. Gaztetan pilotan ibiltzen nitzan, nahiz eta ez nakan hainbeste denbora baina oin, nahi beste dakatenez...




## Maria Sainz

Ahal dudan guztietan, arratsaldeko 5etan etxetik ateratzen naiz eta San Lorentzo aldera lehenengo, Mintxetara gero, batera eta bestera oinez joan eta gaueko 9ak arte ez naiz bueltatzen. 6 km. inguru egingo ditut ateratzen naizen guztietan. Eguraldi txarrarekin ez, medikuek esan didatelako hotza eta hezetasuna ez zaizkidala gehiegi komeni.



## Julia Iriondo

Bai, ixa egunero juten naiz San Antolinera edo... pasiaran. Denboria ere euki ein bihar da eta etxian askotan egoten da zereina. Ni baserrikua naiz eta gaztetan segan zala, belarra batu bihar zala, ganaua zaindu... Baserriko lana bai dala deportia eitxia. Nahikua eindakua naiz ni gaztetan!









Orain dela asko, 1922. urteko maiatzaren 21ean, oso antxixiketa famatua jokatu zen Zarautz aldean. Bi ziren apustugileak. Bata Jazinto Etxenagusia zarauztarra eta León De Nys belgiarra, bigarrena. Zarautzik Aiara joan behar zuten korrika 13 kilometroko luzeran. Horretarako, 3'45" abantaila ematen zion belgiarrak Etxenagusiarri.

Goiz hartan bero beldurgarria ekarri zuen eguraldiak eta korrikalariak ordua atzeratzeko eskatu bazuten ere, froga aginduta zegoen bezala hasi zen.

Aiara kilometro t'erdi falta zela, eta De Nys 100 metrora hurbildu zitzaionean, Etxenagusia leher eginda lurrera jausi zen. Handik ordu batzuetara hil egin zen koitadua.

Korrika apustu hura ikusteagatik, goizean goiz 19 elgoibartar abiatu ziren oinez Zarautz aldera, edo hobeto esan, Orioko gainera. Baina 19 haietatik 7 bakarrik heldu ziren gain hartara halako egun beroarekin.

Zazpi hauetatik, bakarra dago bizirik gaur. Baita abiatu ziren 19 haietatik ere bera bakarrik bizi da.

Nor da Elgoibarren jaio, hazi eta bizi den pertsonaia hau?

Erantzuna datorren asteko zenbakian emango dugu jakitera.

**Testua: Felix Etxeberria,  
"Parapan"**

## Maria Garate Unanue (1902-1974)



- 1902ko irailaren 17an jaio zen Zestoan, Arteaga kale-baserrian. Aita Mendaroko ikazkina zen eta ama Zestoakoa. 4 anaia-arrebaren artetik zaharrena zen.
- Oso gazte etorri zen Elgoibarko "Fundición Mujika"neko Joxe Mariren etxera. Urte mordo egin zituen bertan ezkondu arte, familiakoa balitz bezala.
- 1930ean Jose Mari Iriondo "Garaño"rekin ezkondu eta 4 seme-alaba izan zituzten.
- Lanerako kemen handiko emakumea izanik, sukaldaritza izan zen bere lanbiderik ezagunena. Altzola bainuetxean, Elgoibarko eta inguruetakote jate-txeetan, etxe partikularretan, etab. ibili zen lanean.
- Komadrone edo emagina ere izan zen, askotan Tomas Zubizarreta eta Jose Eizagirre sendagileen laguntzaile gisa.
- Hildakoak apaintzen ere oso trebea izan zen.
- Emakume herrikoia, laguntzailea, alaia, hizketan gozoa eta estimatua denentzat.
- Karta jokoa oso gogoko zuen.
- Erromara bidaia egin zuen eta orduko Aita Santua ezagutu zuen. Baita peregrinazioak egin ere, sinesmen handikoa baitzen.
- Erbesteko etxe batean lanak bukatu ondoren, zoritxarrez, eskilaratan jausi eta erorketaren ondorioz laster hil zen 1974ko abenduaren 5ean 72 urterekin, bere desioa zen bezala, gutxi sufrituta.

**Juanito Gorostiza**



**KAROBI**  
**TABERNA**  
Tel. 74 06 37  
San Frantzisko, 37

**ELGOIBAR**

**Cordon, Vilarchao, c.b.**  
**DEKORAZIOA**

MOKETAK, KORTXO BARNIZATUA, PVC ETA PARETAK, SINTASOLA, ZOLU INDUSTRIALAK, GORTINA BERTIKALAK, GOTELE ERROTULAZIOA, PINTURA OROKORRA.

San Roke , 7 behe. Tel.74 28 74 - 74 05 70






Argazki hau 1972. urtekoa da. Bertan sei elgoibartar agertzen dira, Lesakara egun pasa irten ziren batean. Erretratuak garai hartako modaren nondik-norakoak erakusten digu, bai ile orrazkerak nolakoak ziren, bai jantzietan zegoen joera. Nesken

atzealdean Lesakako baserri bat ageri da.

Segidan erretratuko enizenak emango ditugu:

Atzean dauden hirurak: **Ane Goikoetxea, Juani Sanz** eta **Mari Jose Arakistain**.

Aurrean eserita: **Mari Fran Unzueta, Mari Tere Arakistain** eta **Maite Unzueta**.



MEKANOSA

Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



Karkizano

San Franzisko 12-14 - Tel. 74 05 49

Arrieta

San Bartolome, 18  
Tel. 74 08 49



CRISTALERIA  
ELGOIBARRESA C. B.

Bi dri era arti si koak  
Obra kom ertzi al ak

Urasandi 12 behea  
Tel-Fax: 74 04 89



Bukatu S. Coop.

Olaso industrialdea. Olasope, 66-A

Tel.-Faxa: 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR

MEKANIZATUEN TAILERRA



# “Etekin atera nahi diet entrenamenduei”



## Aitor Mugerza

- **Adina: 10**
- **Zein erropa duzu gustukoen?**  
Txandala.
- **Hondartza ala mendia?** Bixak.
- **Animaliak gogoko?** Bai, etxean ez daukagu baina katua edo txakurra gustatzen jata.

- **Zenbat urte daramatzazu judoan?** - Oin dala zazpi urte hasi nitzan, 3 urte naukan.

- **Zergatik judoa?** - Nere amak esan zian ia nahi naban apuntatzia eta neri beti izan jata gustoko. Behin jun nitzan ikustera eta gustau ein zitzaidanez apuntau ein nitzan. Beti juten naiz oso gustora, ez naiz aspertzen.

- **Zein gerriko duzu?** - Marroia. Gero beltza dator baina ondiok asko falta jata. Hemendik sei urtera edo atera ahal izango dot .

- **Marroiak maila altua duzula esan nahi du, ez?** - Bai, hala ere beltzerako ondiok gauza asko ikasi bihar ditzut. Luxaziuak adibidez. Honez gain, llabe batekin problemia dakat. Eskumako hankia aurrian ipini biharrian atzian jartzen dot eta ohitxura hori kentzeko bi urte edo biharko ditzut.

- **Frantzian, Lourdes-en urrea irabazi zenuen ippon kalifikazioaz.** - Notarik altuena da. Konpetitzeko denbora mordo bat itxoin bihar izan naban. Bederatzi terdian hasi zan txapelketia eta 6:30etan konpetidu naban. Nahiko nekatuta nauan txandia tokatu jatanian. Lelengo esan ziaten hamabixetan hasiko nitzala, gero ordubatian, gero ordubixetan... eta hola 6ak arte.

- **Hala ere, erraz irabazi zenien.** - Bueno, ni baino txikixauak zianeri bai.

- **Etorkizun handia duzula entzun**

**dut. Ados?** - Gogor entrenatzen nao eta etekin bat ateratzia nahiko nuke. Juduakin lan eixia gustauko jatan baina leengo ikasketak daoz eta gero beste guztia.

- **Euskadiko Judo Txapelketan parte hartuko duzu?** - Maiatzian Gipuzkoako finala dakagu eta gero ikusiko dugu Euskadikorako aukerarik dakagun. Gipuzkoakora klasifikatorixa guztietan lena izan naiz eta aukerak badauzkat.

- **Etxean besteren batek egiten al du judoa?** - Nire arrebak. Hala ere, nahixo du gimnasia erritmikua.

- **Egiten al duzue borroka elkarren artean?** - Batzuetan, baina ez do gu judua erabiltzen, bestela...

- **Zer da zailagoa, llabeak egitea, ala hauen izenak ez ahaztea?** - Batzuen izenak zailak diaz baina ikastia zaila da. Llabe bat 10 aldiz ero einda ikasten dozu. Hala ere, gauza batzuk ikasteko denbora asko bihar izaten da. Esateko zailena “Sasaihutsurikomiasi” izenekua da. Horrekin kolpe haundixena hartzen da. Eta eitxeko llabe zailenaren izenakin ez naiz gogoratzen baina “Dan” bat ateratzeko erabili naban. Konplikazio asko daka ze makurtu ein bihar zera, gero eskua sartu beste toki batetik...

- **Beste zein arte martzial gustatzen zaizu?** - Besterik ez jata gustatzen. Bestiak puñetazuak jotzeko diaz baina judua defentsarak, erasotzailian indarra eta zuria aprobeixau defenditzeko.

## KIROL ALBISTEAK

### ● Ramon García txirrindularia fin dabil

Lagun Taldeko jubenetan korritzen duen Ramon García elgoibartarrak denboraldi hasiera ezinhobea izan du. Lau lasterketatan parte hartu eta bitan bigarren postua lortu du eta beste batean, laugarrena izan zen. Joan den asteburuan, Frantziako Nazioarteko jubenetan lasterketan, Ramon García 10. postuan sartu zen helmugan. Txirrindulari hau emaitza benetan onak ari da lortzen aurtan.

### ● Infantilen Pilota Txapelketa hasiko da

Lagunak Eskolak infantilen pilota txapelketa antolatu du apirilean hasi eta ekainera bitartean. Izena emateko monitoreekin harremanetan jarri entrenamenduetara agertuta. Txapelketan bi modalitate egongo dira: eskuz banakako partiduak alebin, benjamin eta infantil mailatan eta binakakoak alebin mailan. Azken honetan Elgoibarko eta Deba bailako pilotariek hartuko dute parte. Partiduak Plaza Handian jokatuko dira arratsaldean.

## ESKOLARTEKO JOKOAK

### AGENDA (Apirilak 12, larunbata)

#### SASKIBALOA

- **Benjamin mut. (Herri Eskolan)**
  - 11:00 Mendaro A2 - Pilar Flash
  - 11:30 Pilar Lakasitos - Mendaro A1
  - 12:00 Ikas Zirt - Ikas Marrazo
  - 12:30 Ikas Txut - Ikas Kirol

#### ■ Benjamin neskek (Herri Eskolan)

- 9:30 Pilar Usoak - Ikas Zart
- 10:00 Pilar Kas - Ikas Izurde
- 10:30 Urasandi - Ikas Izar

#### ESKUBALOA

- **Alebin mut. (Kiroldegian)**
  - 9:45 H. Manchester - Ikas Axelkoak
  - 10:30 Ikas Otsokoak - Pilar All Star
  - 11:15 Mendaro D - Herri Boomerang
  - 12:00 Pilar Ajax - Pilar S. Germain

#### ■ Alebin neskek (Ikastolan)

- 9:45 Pilar Star Girls - Ikas Sei
- 10:30 Mendaro C - Ikas Txingor
- 11:15 Herri Women's - Pilar Mix
- 12:00 Ikas Laino - Ikas Beder

#### ARETO FUTBOLA

#### ■ Infantil mutilak (IMHn)

- 9:45 Ikas Pirri - Pilar Boys
- 10:30 Ikas Txuri - Ikas Amantis
- 11:15 Ikas Urdin - Pilar Inter
- 12:00 Ipurterreak - Herri Milan

#### ■ Infantil neskek (Herri Eskolan)

- 10:30 Ikas Katxondak - Pilar Girls
- 11:15 Ikas Beltz - Peña Insti
- 12:00 Ikas Gorri - Gremilins



# Joseba Etxeberria peñaren aurkezpena Athletic-eko zazpi jokalarari eta Iribar izan ziren aurkezpenean

*Joan den astearte iluntzean Kultur Etxeko hitzaldi gelan Joseba Etxeberriaren jarraitzaileen taldeko kideak elkartu ziren herritarren aurrean “peña” honen aurkezpena egiteko asmoz. Ekitaldiari kolore berezia eman zion Josebaren presentziak ezezik, Athletic-eko 7 jokalarari bai eta Iribar atezain mitikoaren etorrerak ere.*

**K**ultur Etxeko aretoaren dimentsioak direla-eta, gonbidapena zutenak bakarrik izan zuten “Peña Athletic Club” sortu berri denaren aurkezpenean egoteko aukera. 100 bat lagun gutxi gora-behera. Ekitaldiaren aurretik aurrekoa dantzatu zitzaion Joseba Etxeberriari Kultur Etxeko sarreran herritar mordo baten aurrean. Ekitaldi hasieran oroigarri bat banatu zitzaion elgoibartarrari. Segidan Jose Angel Iribar “El Chopo”ren eta Athletic-eko jokalarien arteko solasaldia izan zen ETBko Josu Loroño kazetariak moderatuta. Kazetariaren galderei ezezik, ikusleagoak luzatutako itaunketei ere erantzun zieten solaskideek. Ekitaldia amaitu bezain laster, indarrak berritzeko prestatutako luntxa eskaini zuten antolatzaileek Kultur Etxeko ganbaran.

## “Peña”ren gora-beherak

Honako hau ez da Joseba Etxeberriaren inguruan sortu den lehen zaletuen taldea. Josebak Real Sociedad taldean jokatzen zuenean sortu zen lehen taldea,



*Joseba Etxeberria zaletuen omenaldia jasotzen.*

errealzaleena. Orduan lortu berri zuen jokalarari txuri-urdinak Qatar-eko mundialeko urrezko bota eta zaletuak pozez gainezka zeuden elgoibartarrarekin. Pozak ez zuen gehiegi iraun, berehala Athletic-eko zuzendaritzak talde txuri-gorrian jokatzeak fitxatu baitzuen. Errealzaleen “peña” desagertu egin zen eta batzuen zoritxarra, poza bihurtu zen beste batzuentzat, Athletic zaleentzat, alegia. Hauek, besteek lagatuko hutsunea bete zuten “Etxeberria Peña Athletic Club” sortuz. Gaur egun 60 bazkide ditu zaletuen talde honek eta aurrerantzean gehiago izango diren esperantza dute.



*Athletic taldeko jokalariek eta Iribar mitikoa argazkian.*

## EMAITZAK

### Futbola

Pedrusko 1 - Gazteak 6 (2. erreg.)  
Aurrera 2 - Haundi 1

### Eskubaloia

Hernani 8 - Unceta Elg. 24 (Kad. nes.)  
Pneumax Elg. 28 - Arrate Txiki 10  
(Kad. mut.)  
Tecnomeca Elg. 36 - Egia 17  
(Jub. mut.)  
Bidebieta 15 - Pagoaga Elg. 13  
(Jub. nes.)

### Areto futbola

Pascual 4 - Elgoibar 6 (Autonomikoa)  
Gubi Zarautz 0 - Elgoibar 3 (1. maila)

## AGENDA

### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 12  
10:00 Gazteak - Intxaurren (Jub.)  
11:45 Urki - Lagun Onak (Jub.)  
13:30 Urki B - San Patricio (Jub.)  
17:00 Haundi - Arratia  
18:45 Elgoibar - Vasconia (1. erreg.)

### Igandea, 13

10:30 Elgoibar - Real Sociedad (Kad.)  
12:15 Eibartarrak - Añorga (Neskak)  
14:00 Urki - Azkune (Erreg.)  
17:00 Beti Sutan - Pedrusko (2. erreg.)  
18:45 Eibartarrak - Sorazluze (Erreg.)

### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 12  
16:00 Unceta Elg. - Zestoa (Kad. nes.)  
17:30 Pneumax Elg. - Bergara  
(Kad. mut.)

### Igandea, 13

12:15 Pagoaga Elg. - Urnieta  
(Jub. nes.)

### Saskibaloia, Kiroldegian

Larunbata, 12  
19:00 Elgoibar - Goierri B

Ekekeiren obra berriaren estreinaldia, gaur, apirilak 11, gaueko 22:30etan

# Euskal Herria, Fumantxuren ikuspuntutik

*“Fumantxu, Gernikako arbolaren gerizpean” izeneko lana estreina-tuko du gaur gauean Ekekei Antzerki Taldeak Elgoibarko Izarra Kultur Elkartearen eskutik. Taldea eratu zela 10 urte beteko dira aurten. Mikel Osoro, Mikel Cornejo, Igor eta Iñaki Odriozola, Izaskun Arozena, Jose Martin Urrutia, Lorea Perez de Albeniz eta Xabier Ansolak osatzen dute Ekekei. Urte hauetan zehar lau antzezlan egin dituzte: “Ni naiz kapitain pilotu”, “Haundia zara txikitxo”, “Hiltegia” eta “Fumantxu...”. Tartean besterik ere egin dute, “parrrrrodiak eta holakuak”. Oraingo honetan Euskal Herriko errealitateari buruzko interpretazio berezi batekin datozkigu.*

- Euskal Herria ispilu ahur baten aurrean jarriko bagenu?

- **Txotxe:** Euskal Herria erreferentzia gisa hartzen duen ipun-txo bat izan leike ikusten dana. Euskal sinbolo garbi batzuk hartuta, San Inazio, San Mames, Ikurrina, lehen euskal gizakiaren kazkezurra, euskara bera... eta halako gauzen bitartez ipuin bat kontatzen dogu. Istorio bat asmo batekin.

- Zein da asmo hori edo azpiko mezu hori? - **Mikel Osoro:** Istorixia azalian izan leike ipuin bat besterik gabe eta azpizan badaude klabiak interpretaziorako. Bukaeran esaten dana azken finian: “bakoitzak amestu dezala nahi duen Euskal Herria”. Guk egiten duguna da Euskal Herria

hankaz gora ipini Fumantxu, Egurola eta Super-Polloren bitartez eta gero, eman aukera bakoitzari bere Euskal Herria amesteko.

- **Mikel Osoro, zu zara gidoiaren egilea.** - Hasieran danon artian ideia landu gendun eta gero nik desarrolau naban, elkarrizketak ein, pertsonaiak landu...

- **Lehenengo aldiz egiten duzu gidoi bat?** - Ez, keba. Ez dakit azkena izango dan baina lelengua ez. Ekekeirentzat ein izan ditzut gioiak eta lehen Taupadarentzat ere bai. Obra honetan gainera, gauza kurioso bat pasau jata: pertsonaia bat idazten nauala banakixan zeinentzat izango zan. Mikel Cornejorentzat idatzi naban Super-Pollo. Oso ondo juten jako. (Barreak)

- **Eszenografia ere zuek egindakoa da.** - **Txotxe:** Obra honetan nik eta Igorrek ein dogu dekoraua. Ekekein beti ein izan dou prozesu guztia: hasi dekorauko azken kabletik eta bukatu gioiaren azken puntuan. Taldearen filosofia da. Orainguan Mikel Cornejok musikia ein dau.


- **Barre egin omen zuen jendeak aurre-estrenoan.** - **Xabier Ansolak:** Bai. Parodia bat bezela definitu leike. Gure asmua ez da barria sortzia baina pertsonaiak eta egoera bera oso parodiatuta daude. Apur bat satirikoa eta askotan guk bakarrik ulertzen ditzugun hitz jokuak daoz.

- **Zer espero duzue estreinaldian?** - **Xabi:** Egin ditugun aldaketak ondo geratzia eta jentiar gustatzia.

## Taldekideak eta pertsonaiak



Jose Martin Urrutia, **Fumantxu:** Mundua aldatu nahi du eta badu horretarako boterea eta ahalmena. Utopia baten atzetik doa.




Mikel Cornejo, **Juliantxo Artaburuaga** eta **Super-Pollo:** Mutil zintzo eta sustantziarik gabekoa. Super-Pollo bihurtzen denean sustantziarik gabeko super-botoredun mutila izango da.




Izaskun Arozena, **Garbiño Egurrola komisario anderea:** Ertzain tipikoa bere kontezpzioan. Fumantxurekin harreman berezia du.



Igor Odriozola, **Zeberio:** Narratzailea. Ernestoren bikotea da eta buruzagi papera betetzen du.



Mikel Osoro, **Ernesto:** Narratzailea. Istorioa bideratzen du Zeberiorekin batera. Beldurti xamarra da.



Musika eta argiak: **Xabier Ansolak** eta **Iñaki Odriozola.**



Gainontzeko taldekideak: **Lorea Pérez de Albeniz.**



Istorioa: Fumantxuk Euskal Herria aldatu nahi du eta beste gauza bat sortu. Horretarako sinboloak lapurtzen ditu baina bertakoek ez diote lagako. Batetik Fumantxuren nahiak daude, eta bestetik, Egurolak eta Super-Pollok jartzen dizkioten trabak.







# Alkortan ez da egongo

## Gaztetxerik

Pedro Muguruzako Jarbe enpresa ere aproposa izan daiteke

*Urte hasieran sortu zen Gazte Batzordea. Orduetik hona hainbat bilera egin dituzte gai desberdinak aztertu eta irtenbide posibleak bilatu asmoz. EAJko Ana Santolaya eta Gotzon Arrieta, EAko Ales Arrieta, Gakoako eta Errotatxoko ordezkariak, Mekanika eta Institutuko zuzendariak eta Gazte Asanbladako kideak elkartu izan dira bileretan. Gai nagusia Gaztetxea izan da orain artean. Alkortaren lokalarekin tirabiran ibili eta gero, momentuz badirudi nahiko zaila izango dela toki hori eskuratzea, dirudienez saltzeko asmoa baitu.*



*Gazte Batzordekoak eta Gaztetxearen aldeko Plataformakoak (GAKOA) bilera batean.*

**G**azte Batzordeak komunikabideen aurrean egin zuen aurkezpenean txosten baten berri eman zuten. Aipatu txostena Gazte Batzordeko kideek eta Udaltxeko teknikariek osatu zuten eta orain hilabete inguru elkarte desberdinei bidali zitzairen. Laster, Gazte Batzordeko kideek elkarte horiei deitu eta bilerak egingo dituzte beti ere txostenari buruzko iritzia eta aporazioak jaso eta elkarlana egiteko.

### Gaztetxea

Iazko abenduaren 28an Gazte Asanbladak Madalan kokatzen den Alkortaren lokala okupatu eta Gaztetxea jarri zuen bertan. Gazte Batzordeak sorreratik ikusi zuen Elgoibarko gazteentzat elkartzeko txoko baten beharra. Izan ere, orain artean gai horrek izan du lehentasuna. Urte askotan apenas elkarriketarik izan da Udalaren eta Gazte Asanbladaren artean eta oraingo honetan badirudi biak ere jarrera baikorra dutela eta elkarrekin lan

egiteko prest azaldu direla. Gotzon Arrieta Gazte Batzordeko kidearen hitzetan, “argi dakagu lokala ezin dala txikixa izan. Gazte Asanbladak aurkeztu zigun proiektu bateko ekintzak martxan jartzeko biharrezkua da de-xente metro karratuko lokala. Alkortan aproposa ematen zaban, tokixa ere

ona dalako baina jakin dogunez saltzeko tratuetan dabil konструкторaren bategin eta litekeena da konstruktora horrek toki horretan etxiak egiteko as-mua eukitzia”. Horregatik, alternatiba berriak mahai gainean jarri eta bestelako lokalak aztertzen hasi behar dute Gazte Batzordekoek.



*Gaztetxea izandako azken lokala, Alkortako tailer zaharra.*

INTERESEKO

OSASUNA

Anbulategia:  
 Larrialdiak . . . . . 461111  
 Txanda hartzeko . . . . . 743354  
 Planning-a . . . . . 742950  
 Alkoholiko Anonimoak . . . . . 740385  
 D.Y.A (anbulantzia) . . . . . 464622  
 Gurutze Gorria . . . . . 743864  
 Mendaroko Ospitalea . . . . . 756264  
 Odol Emaileak . . . . . 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . . . . 740442  
 PESA (Eibar) . . . . . 902 10 12 10  
 Taxi geltokia . . . . . 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . . . . 744366  
 Udal Kirol Patronatua . . . . . 744415  
 Kultura Zerbitzua . . . . . 742158  
 Mendaroko Udala . . . . . 756100  
 Ongizate zerbitzua . . . . . 741008  
 Udaletxea . . . . . 741050  
 Udalzaingoa . . . . . 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . . . 741626  
 Kirolegia . . . . . 744415  
 Kontsumo Bulegoa . . . . . 743088  
 Liburutegia . . . . . 743525  
 Musika Eskola . . . . . 742145  
 Mintxeta . . . . . 744315  
 Parrokia . . . . . 740842  
 Postetxea . . . . . 741547

HIRUGAREN ADINA

San Lazaro Egoitza . . . . . 740296  
 Zaharren Biltokia . . . . . 740526

IKASTETXEAK

Haur Eskola . . . . . 74 21 41  
 Herri Eskola . . . . . 74 08 79  
 I.M.H. . . . . 74 41 32  
 Herri Institutua  
 Arreiturre . . . . . 74 02 67  
 Ezenarro (Meka) . . . . . 74 44 80  
 Ikastola . . . . . 74 44 41  
 L.H.I. . . . . 74 44 80  
 Pilar Ikastetxea . . . . . 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN . . . . . 74 41 12  
 El Diario Vasco . . . . . 74 40 73  
 El Correo EspaDol . . . . . 74 10 82  
 Egin . . . . . 10 84 21  
 Zazpiki Irratia . . . . . 74 34 74

11 ostirala

**22:30 ANTZERKIA**  
 Antzezlanak: "Fumantxu,  
 Gernikako arbolaren  
 gerizpean"  
 Taldea: Ekekei  
 Herriko Antzokian  
 Antolatzailea: Elgoibarko  
 Izarra

12 larunbata

**11,00 NAGUSIEN  
 TANBORRADA  
 BILERA**  
 Kultur Etxean

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "El club de las primeras  
 esposas"

13 igandea

**12:00 FILATELIA  
 ELKARTEAREN  
 BATZAR NAGUSIA**  
 Azoka Plazan

**12:15 HAUR KROSA**  
 Plaza Handian  
 Antolatzailea: San Barto-  
 lome ikastola

**19:30-22:15 ZINEA**  
 "El club de las primeras  
 esposas"

14 astelehena

**22:15 ZINEA**  
 "El club de las primeras  
 esposas"

17 osteguna

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "El funeral"

18 ostirala

**22:15 ZINE KLUBA**  
 "El funeral"

ZIN



**Zuzendaria: Hugh Wilson**  
**Antzezleak: Bette Midler,**  
**Diane Keaton, Goldie Hawn.**

El club de las primeras esposas

Dibortziatutako emakume talde baten inguruko gora-beherak jasotzen ditu filme honek. Hiru emakume dira protagonistak. Elkarren lagun dira eta bakoitzak bere senarrari sozialki arrakasta lortzen lagundu dio. Behin hori lortuz gero, senarrak dibortziatu eta neska gaztetxoagoekin ezkontzea erabakitzen dute. Emakume irainduak mendekua nahiko dute.



● Domekan,  
IV. Haur Krosa

San Bartolome Ikastolak Haur Krosaren 4. edizioa antolatu du iganderako, hilak 13. Lasterketak eguerdiko 12:15etan hasiko dira eta aurten partehartzea oso handia izango da, 472 haurrek eman baitu ize-na. Hamahiru lasterketa izango dira guztira eta azkena amaitu bezain pronto sari banaketa ekitaldiari ekingo zaio. Par-taide guztiek domina jasoko dute eta adin bakoitzeko lehen neska eta lehen mutilak trofeoa.



● Nagusien  
Tanborradako  
bilera

Trinitate jaiak maia-tzaren 24an izango dira. Aurten ere nagusien tanborrada izango da larunbat gauean. Hori dela eta, lehen bilera bihar larunbata, hilak 12, izango da goizeko 11etan Kultur Etxean. Kuadrilen ordezka-riei eskatzen zaie bilerara azaltzeko, lehenbailehen zehaztu dadin partehartzaileen kopurua.

● Filatelia  
Elkartaren Ohiko  
Batzar Nagusia

Filatelia Elkarteak hi-laren 13an, domeka, Ohi-ko Batzar Nagusia egingo du eguerdiko 12etan azo-ka plazako egoitzan. Gai ordenean puntu hauek azaltzen dira: presidente-aren agurra, aurreko akta eta txosten ekonomikoaren onarpena, memoria-ren irakurketa, zuzenda-ritzaren berrikuntza eta galderak. Goizeko 11eta-tik aurrera materiala ja-sotzeko duten bazkideek aukera izango dute euren egoera gaurkotzeko. Bila-ren ostean material filate-likoa zozketatuko da.

ORDUA	KORRIKALARIAK	LASTERKETA KOPURUA	IBILBIDEA
● 12:15	● 89an eta 90ean jaiotakoak	● 4	● Plaza Handia, Errosario, Kultur Etxea, San Bartolome Plaza (320 m.).
● 12:30	● 87an eta 88an jaiotakoak	● 4	● Plaza Handia, Errosario, Lorito, Urruzuno, San Bartolome eta Plaza (615 m.).
● 12:45	● 85ean eta 86an jaiotakoak	● 4	● Plaza, San Frantzisko, Madala, Urruzuno eta Plaza (955 m.).
● 13:00	● 83an eta 84an jaiotakoak	● 1	● Plaza, Kultur Etxea, Plaza, Santa Ana, Trenbide kalea, Anbulategia, Kultur Etxea, Plaza Handia (1.420 m.)

ONGARRI  
zine kluba



Zuzendaria: D. Ferrara  
Antzezleak: C. Walken, C. Penn,  
I. Rossellini, B. Del Toro, V. Gallo.

El funeral (USA 1996)

96an zine beltzearen generoan puntako pelikularen bat egon izan bada, "El funeral" da berau. Filme gogorra, trinkoa eta hotza. Mafiosoen familia bateko anaia gazteena beste banda bateko kide-ek hiltzen dute. 30. hamarkadan kokatua dago, Amerikak bizi izan zuen depresio-aren testuinguruan girotuta. Chris Penn aktoreak interpretazio onenaren saria ja-so zuen Venecia 96 jaialdian.

T X A N -  
D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
12	Etxeberria*	Anduaga
13	Etxeberria*	Anduaga
14	Ormazabal	Escala
15	Bidasolo	Bidasolo
16	Yudego	Yudego
17	Ormazabal	Ormazabal
18	Etxeberria	Anduaga

\*(eguerdiko 2ak arte)

OKINDEGIA

8 igandea Zabaleta

## Salerosketak

### ◆ SALDU ◆

- ◆ Sukalde bat saltzen dut egoera onean. ☎ 74 11 40
- Idazmakina elektronikoa salgai. ☎ 74 44 43 (17:30etatik aurrera)
- ◆ Jaunartzeko mutilen arropa salgai. ☎ 74 44 43
- ◆ Opel Kadett salgai. SS-S. ☎ 74 04 75
- ◆ Errepideko bizikleta bat saltzen da. Orbea etxekoa. Prezioa 15.000 pta. ☎ 74 11 29
- ◆ Vespa motorra salgai. 200 cc. Egoera onean. ☎ 74 24 42
- ◆ Egora onenean dagoen piano bat erosiko nuke. 76 56 78 (Goizeko 10etatik 12etara)
- ◆ Suzuki Samurai SS-AF salgai. Egoera normalean. ☎ 907-24 29 25/74 31 81
- ◆ BX turbo diesel bat salgai. Egoera onean. ☎ 74 40 77 (20:00-22:00, Fermin)
- ◆ Buzeatzeko traje bat saltzen dut. Bi aldiz forratua, 7 mm-takoa eta "Mares" etxekoa. ☎ 74 36 91
- ◆ Keroseno estufa erosiko nuke. ☎ 74 04 59 (gauetz)
- ◆ Silikonazko erroberak eta erabili gabe dauden 39-40 zenbakiko patinak salgai. Oso merke. ☎ 74 14 54 (gauko 9etatik aurrera).

## Partikularrak

- ◆ Euskarazko eta Lehen Hezkuntzako partikularrak ematen dira. Talde txikiak. ☎ 74 09 72 Garikoitz
- ◆ Matematika, kontabilitatea, praktika administratiiboak, kosteen kontabilitatea eta abarri buruzko klase partikularrak ematen ditut. Maila guztiak eta talde mugatuak. Esperientzia dut. ☎ 74 21 65 Javi
- ◆ Ingelesko partikularrak emango nituzke, bai eta itzulpenak egin ere. ☎ 74 15 82 Edu

## Etxebizitzak

- ◆ Udan, uztaileen izan ezik, Santa Polan (Alicante) bungalow-a alogeran ☎ 74 12 13 Carmen (Gauetz deitu)
- ◆ Etxea dut alokatzeko Urasandin. Bista onak lehenengo ilaran. ☎ 74 23 16
- ◆ Logela baterako altzariak salgai: ohea, mesanotxea, hiru ateko armairua, eskritorioa eta estanteriak. Berriak ☎ 74 12 85
- ◆ Etxebizitza saltzen dut Eulogio Estarta 3-4 ezkerrean. Hiru logela, komuna eta sukalde-jangela ditu. Prezio interesgarria. ☎ 71 53 71 (9etatik 16etara eta 19etatik 22etara. Manolo).
- ◆ Etxebizitza unifamiliarra saltzen dut. Duplex adosatua. 40m2-ko sotoa eta 3 fatxada. Prezio interesgarria. ☎ 13 16 83
- ◆ Etxebizitza bat saltzen da Deban. Bista ezinhobeak eta etorkizun handiko lekua. ☎ 19 19 22
- ◆ Pisia daukat saltzeko Santa Ana kalean. 3 logela, sukalde, egongela eta bainua ditu eta erreformatua dago. ☎ 74 37 25
- ◆ Haurrik gabeko senar-emazteak pisua behar du alogeran. Ahal bada altzariekin. ☎ 75 62 18

## Garajeak

- ◆ Garaje itxi bat saltzen da Arregitorren. ☎ 74 12 53
- ◆ Garaje bat salgai Leku-Ederreko 4. solairuan. (9etatik 13etara) ☎ 74 32 04
- ◆ Garaje itxi bat saltzen dut Arregitorren. ☎ 74 34 10
- ◆ Karakate elkartearen azpian marraun garaje bat alokatzen da. ☎ 74 18 37

## Bestelakoak

- ◆ Zuzenbidean lizentziatuak errenta aitortpenak egiten ditu. Tel: ☎ 74 01 13
- ◆ Urre zuridun eraztuna, 9 bitxirekin galdu nuen Aste Santuan. Sarituko da. ☎ 74 03 44
- ◆ Norbaitek kirol-boltsa urdin bat ahaztu zuen BARRENen Aste Santuko oporren aurretik. Etor dadila bila.
- ◆ Mendiko bota bat galdu dut. Goretex arrosa, lila eta berde kolorekoa da. ☎ 74 38 45 Matilde.
- ◆ Egunero Bilbora goizean goiz kotxez doan norbaitekin joan eta gastuak konpartituko nituzke. ☎ 74 08 78 Maite.
- ◆ Hozkailu bat hartuko luke Caritas-ek. ☎ 74 15 09/74 12 57
- ◆ Hilaren 14an, ostirala, Casio markako erloju bat galdu nuen Mekanika inguruan. ☎ 74 38 41

## Lana

### ◆ ESKAINTZA ◆

- ◆ Kamarera bat behar dugu jangelarako Plazentzian. Esperientzia eskatzen da eta euskalduna bada hobe. Curriculum-ak bidali 130 postakutxatilara. Soraluze
- ◆ Garbiketa produktu berriak inportatzen dituen enpresak **banatzaileak** behar ditu Gipuzkoan zuzeneko salmantan aritzeko. Komisio garrantzitsuak. Interesatuak **GORA IMPORT, Madrid etorbideta 21, 4-A, 20011 Donostiara** zuzendu.
- ◆ DEBABA Udal Euskaltegien Mankomunitateak **amatasun-baja bat ordezkatzeko administrari** bat behar du. Deialdia arautuko duten oinarriak interesatuz gero, hurrengo tokietan jaso daitezke **apirilaren 11tik 16ra** bitartean: **Elgoibar: Nafarroa Plaza, 2. Deba: Ifar kalea, 12. behea eta Murtri: Txurruka plaza, 1.**
- ◆ **ESKAERA** ◆
- ◆ Edozein lan mota egiteko prest nago. (Umeak, nagusiak zaindu). ☎ 75 26 75 Mari Karmen
- ◆ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. ☎ 74 06 09 Marisabel
- ◆ Etxeko lanak egiteko edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago. Esperientzia daukat dependienta bezala. ☎ 74 22 78
- ◆ Umeak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 74 28 43

## Agurrak

- ◆ Zorionak **etxeko señoia**ri, apirilaren 13an 56 urte beteko ditu eta. Iturri, Menbri, Imanol eta señoiritia.



- ◆ **Isabel Unanue Lejardiri** zorionak apirilaren 12an urteak beteko dituelako. Muxu handi bat Zuriñe eta Vicenteren partez.



- ◆ Zorionak **Sergio Arroyori** igandean, hilak 6, 2 urte beteko dituelako. Mikel, Jabier, Andres eta Mariviren partez.
- ◆ Zorionak **Miren Itziarri** apirilaren 12an 38 urte beteko dituelako. Familiaren partez.

- ◆ Zorionak apirilaren 19an 12 urte beteko dituen **Maialen Morari** 6. mailakoen partez.

- ◆ Superultramegaplusultramegaplus zorionak **Maria Maguregiri**, bihar, larunbata, bere superultramegaplus urtebetetzea delako. Zeinen partez ote?

- ◆ Hilaren 9an, asteazkena, urteak bete zituen **Mireni** zorionak Ane, Mila eta Jose Luisen partez.

- ◆ Zorionak **Leire** izeneko kazetari amorratu bati, apirilaren 9an 22 urte bete zituelako.

- ◆ Zorionak **Amagoia** eta **Antonio Fernandezi**, hilaren 7 eta 8an ahate bat eta pilota bat eta besteak, bi aulki osatzeagatik.

- ◆ Zorionak **Mila** eta **Marian Kruzelegiri** apirilaren 6an eta 3an hainbat urte bete zituztelako. Bikiñtezi maitearen partez.

- ◆ Zer **Ane**? Zure gelakideek zure urtebetetzea noiz den jakingo ez genuela uste zenuen? Apirilaren 8an egin zenituen 15 urte potolok ongi bete ditzazula. Zure adiskideen partez.

- ◆ **Amalurtxo**, zorionak apirilaren 9an. Ez pentsa zure lagunok ahaztu zaitugunik 14. urtebetetzean.

- ◆ Aupa **Mirentxu**. Apirilaren 9an 14 urte. Bueno, askoz gehiago bete ditzazula zure lagun Olaia, Julia eta nola ez, Maitek.

- ◆ Zorionak **Enrike Larrañagari** apirilaren 10ean urteak egin zituelako bere familia osoaren partez.



# LEKU-EDER ETXEBIZITZAK

LOKAL KOMERTZIALAK ETA GARAJEAK SALGAI



*Etxebizitza bakarra*

*gelditzen zaigu*

**EZ GALDU  
AUKERA HAU!**

**INFORMAZIOA  
ETA SALMENTA:**

**20 83 16**



- ☉ Aukera zabala logela eta egongelatan: estilo guztiak.
- ☉ Sukalde eta elektragailuak bila zabiltzan prezioan.
- ☉ Ordenagailuz egindako diseinuak.
- ☉ 3.000 m<sup>2</sup>-ko erakusketa 3 solairutan.

ALTZARIAK

**ENDANETA**

Itziar gaina - tel. 19 91 00 - DEBA (Gipuzkoa)



COLCHON

*Laxy*





# Sara



San Franzisko, 44 Elgoibar  
Tlf.: 743555



## ASTIELEHENETIK OSTIRALERA

9:30 - 13:00

16:30 - 20:00

## LARUNBATEAN

9:30 - 13:00

